

EBAZPENA, 2025EKO URRIAREN 31KOA, TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDETZARENA, DIRU LAGUNTZAK ESLEITZEKO 2025/2026 IKASTURTEAN ERASMUS + PROGRAMAN IRAKASKUNTZA-HELBURUAK DITUZTEN EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA (EHU)KO LANGILEEN MUGIKORTASUNERAKO.

2025 ekainaren 25eko deialdiko, 2.4 atalak dioen bezala, 1. mugikortasun bat ez badator bat taulan adierazitako ebazpen arrunten egutegiarekin, baina Nazioarteko Harremanen Bulegoak onartzen badu, EHUrentzat interes estrategikokoa dela iritzita, salbuespen gisa, mugikortasun hori taulako egutegitik kanpo eskatu eta egin ahal izango da. Honako hauek hartuko dira interes estrategikoko mugikortasuntzat: "Enlight" Europako Aliantza osatzen duten unibertsitateetan egiteko proposamenak eta Programa Intentsibo Konbinatu (BIP) batean irakaskuntza-jarduera bat egiteko mugikortasunak. Egutegi arruntean sartzea ezinezkoa dela behar bezala justifikatu beharko da. Nolanahi ere, Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak erabakiko du mugikortasun hori onartzen den ala ez, eta Ebazpen honek mugikortasun guztietarako ezartzen dituen baldintza eta konpromiso berberak bete beharko dira.

Beraz, aurreko paragrafoan oinarrituta, proposamen honetan kontuan hartu da 2025/10/02tik eta 2025/10/13ra bitartean aurkeztutako eskaerak.

Jasota dagoenez, guztira eskabide 1 jaso da.

Akatsak zituzten eskaerak zuzendu edo osatzeko eman zen epea behin amaituta, batzordeak aztertu egin zituen onartutako eskaerak, deialdian aipatutako irizpideei jarraituta.

RESOLUCIÓN DEL 31 DE OCTUBRE DE 2025, DEL VICERRECTORADO DE TRANSFERENCIA E INTERNACIONALIZACIÓN, POR LA QUE SE ADJUDICAN LAS AYUDAS ECONÓMICAS PARA LA MOVILIDAD DE PERSONAL DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO (EHU) CON FINES DOCENTES EN EL MARCO DEL PROGRAMA ERASMUS + DURANTE EL CURSO 2025/2026.

Tal y como indica el punto 2.4 de la convocatoria del 25 de junio de 2025, si una movilidad no encaja en el calendario de resoluciones ordinarias indicado en la tabla, pero la Oficina de Relaciones Internacionales la considera de interés estratégico para la EHU, de manera excepcional dicha movilidad podrá ser solicitada y realizada en fechas diferentes a las del calendario de la tabla. Serán consideradas movilizaciones de interés estratégico: las propuestas para ser realizadas en universidades que forman parte de la Alianza Europea "Enlight" y las movilizaciones para realizar una actividad docente en un Programa Intensivo Combinado (BIP). Deberá estar debidamente justificada la imposibilidad de inclusión en el calendario ordinario. En cualquier caso, será la Oficina de Relaciones Internacionales quien decida si se aprueba dicha movilidad y deberán cumplirse los mismos requisitos y compromisos que esta Resolución establece para todas las movilizaciones.

Por lo tanto, en base al párrafo anterior, en la presente propuesta se ha tenido en cuenta las solicitudes presentadas durante el periodo comprendido entre el 02/10/2025 y el 13/10/2025.

Tal y como consta, se han recibido un total de 1 solicitud.

Tras el plazo concedido para la subsanación o mejora de de aquellas solicitudes que fueron presentadas incompletas, la Comisión de Valoración se reunió para examinar las solicitudes admitidas y aplicar los criterios de valoración establecidos en la convocatoria.

Aurrekoarekin bat etorriz, urriaren 16an ebazpen proposamena argitaratu zen, entzungai prozesurako legezko epea irekita utziz.

Epea amaitu ondoren:

Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordea ados dago proposamenean ezarritakoarekin, eta eman zaizkion eskumenez baliatuz, honako hau

EBATZI DU:

LEHENENGOA.-I. eranskinean jasotako esleitutako hautagaiak hartzen dituen ebazpena ematea.

BIGARRENA. - I. eranskinean jasotako eskaerak finantziatzea.

HIRUGARRENA. - Ebazpen hau eta bere eranskinak argitaratzea.

LAUGARRENA. - Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke dagozkion administrazioarekiko auzien epaitegietan, 2 hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen xedatutakoaren arabera. Hala ere, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, egintza adierazia bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluen arabera.

Leioan, 2025ko urriaren 31ean

Conforme a lo anterior, el 16 de octubre se publicó la propuesta de resolución dejando abierto el plazo legal para el trámite de audiencia.

Una vez concluido el plazo:

La vicerrectora de Transferencia e Internacionalización estando conforme con los términos de la propuesta, y en virtud de las atribuciones que tiene conferidas,

RESUELVE:

PRIMERO.- Dictar resolución donde se incluyen las personas candidatas adjudicadas recogidas en el Anexo I.

SEGUNDO.- Aprobar la financiación de las solicitudes recogidas en el Anexo I.

TERCERO.-Proceder a la publicación de esta resolución y sus anexos.

CUARTO.- Contra esta resolución, que pone fin a la vía administrativa, cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante los juzgados de lo contencioso-administrativo correspondientes en el plazo de 2 meses contados desde el día siguiente a su publicación, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, sin perjuicio del recurso potestativo de reposición ante el mismo órgano que los hubiera dictado en el plazo de un mes, si el acto fuera expreso, de acuerdo con los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En Leioa, a 31 de octubre de 2025.

Miren Gotzone Barandika Argoitia
Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordea
Vicerrectora de Transferencia e Internacionalización